

EUSKARA BATUA: AITZINDARIAK ETA BESTE

1988-IX-20

Koldo Zuazo

Duela hogei urte —1968ko urriaren 3tik 5a bitartean Arantzazun eginiko batzarrean— eman zion Euskaltzaindiak euskara batuari bere onespén eta babesá. Euskaldun guztientzako eredu standard bakarra itxuratzeko eta bultzatzeko helburuarekin 1918an sortu zen Elkarte honek bere 50. urteurrena arte itxaron beharra izango zuen asmo hori beteá ikusi ahal izateko. Ez zen epe luze horretan zehar lotan eta geldirik egon ordea. Jaio bezain laster, jakina denez, bi euskaltzaini —A. Campión eta P. Broussaini— batasunari buruzko oinarrizko zirriborroa gertatzeko agindua eman zitzaíen eta, txosten hori burutu, eta Euskaltzaindiak 1920ko Apirilaren 26an egin bileran ezagutzera eman ondoren, lau batzar berezi deitu zituen aipatu txostenori eztabaidatu eta erabakiak hartzeko asmoan. Ugari izan ziren —hamazazpi guttira— batzar horietan irakurri ziren txosten berriak. Batzarrotatik kanpo ere azaldu zen, han-hemenka, erantzun, eritzi eta proposamenik franko, denetarik aipagarrienak Julio de Urquijok eta R. Menéndez Pidalek egin hitzaldiak, Orixek *RIE* Ven argitaratu artikulua eta Soloeta-Dimaren *Ensayo de la unificación de dialectos baskos* (1922) izeneko liburuxka direlarik. Buru bezainbeste aburu —mota eta kolore guztietakoak gainera— aditu ondoren, norabidea aldatzea erabaki zen. Ezinbestekotzat jo zen erizpide zehatzagoetan oinarritzea eta, xede horrexekin, R. M.^a de Azkuek antolatutako *Erizkizundi Irukoitza* aurkeztu zen 1921eko Urriaren 27an Euskaltzaindiak egin bilerara. 189 galderaz osaturik zegoen Erizkizundi hori: 52 fonetika arazoei zegozkienak, 69 morfologiakoei eta 68 hiztegikoei. Euskal Herri osoan —Ipar zein Hegoaldean— zehar eginiko inkesta honek ere ez zuen, helburuak helburu, espero zen onurarik ekarri eta aski litzateke, diogunaren sendogarri, ez direla Erizkizundi horren emaitzak bere osotasun eta zabaltasun guttian 1984era arte argitaratuak izan gogora eraztea. Egoera nahasi samarra izan nonbait, eta arazoaren konponbidea bertan behera uztea ebatzi zen hariK eta urak baretu eta berriro ere beren bidera etor zitezén arte.

Euskaltzaindiak berak etsi egin bazuen ere, izan zen bere kasa aurrera jo zuenik eta, horien artean, Azkue dugu, zalantza izpirik gabe,

adoretsuen eta iraunkorren ihardun zuena. Gipuzkera —eta, zehatzago esateko, Beterriko gipuzkera— baten ere berak oinarritzat hobetsi zuena, ezinbesteko baldintzatzat joko zuen euskalki hori gainontzeko guztien ondasunez aberastu eta hornitu beharra eta, hortik, bere ereduari eman-
go zion izena: Gipuzkera osotua.

R. M.^a DE AZKUEREN “GIPUZKERA OSOTUA”

1904ean Ordizian ospatutako Euskal-jaietan eman zuen Azkuek lehen-
engoz, guk dakigula behinik behin, bere aukera horren berri eta, harrez
gero, eten gabe ihardungo zuen eredu hori zehazten eta osatzen. *Pron-*
tuario de la lengua vasca (1971), Lacomberen Euskaltzaindirako sarrera-
-hitzaldiari eginiko erantzuna (*Euskera*, II(1920-21), II. zb., 57-63. orr.),
Euskeraren batasunaz (1922), *Observaciones acerca de la obra “Langue*
basque et langues finnoises” (1926), *La épéntesis en la conjugación vasca*
(1927), *Batasuna-bidean edo Fernando Amezketarra-ren autsi-osotxoak eta*
Ardi Galduaren autsi-mautsiak (1927), *Aita Manuel Larramendi'ren Coro-*
grafia de Guipúzcoa (1934) eta, oroz gain, *Gipuzkera osotua* (1934-35)
dira Azkuek bere uste eta jomugak erakuste aldera burututako lan teori-
koak. Hauekin batera, bestalde, adibide zehatzik ere eskaini zigun, *Ardi*
Galdua edo *Latsibi* irakurgaiak lekuko.

Honako hauexek dira Azkuek, bizkaitarra izanik bera, gipuzkeraren
alde agertzeko izan zituen arrazoi nagusiak: a) euskalki hau, erdialdekoa
delarik, gainontzeko euskaldunentzat ulerterrazena izatea, b) “osasun”
hoberenekoa ere berau izatea eta c) historian zehar izandako literatur
tradizioari esker aski bateratua egotea.

Zuzena eta bidezkoa deritzogu guk geuk Azkueren burubideari,
berak emandako arrazoi horiekin bat etortzeaz gainera, laugarren bat ere
—eta hauxe, beharbada, denetan erabakiorrena— ikusten dugulako oina-
rritzat Beterriko gipuzkera hautatzearen alde: hizkera hau, mendeen harian,
euskaldun guztientzako —Hegoaldekoentzako bederen bai— hizkuntz ere-
du bilakatu izana. Oso aspaldidanikoak ditugu hizkera honek bereganatu-
tako prestigioaren berri demaiguten lekukoak, denetan zaharrena, guk
dakigula, 1764ean Peñafloidako Kondeak bere *El borracho burlado* ope-
raren sarreran egin oharretan aurki daitekeelarik. Beterriko hizkeran oina-
rrituta daude, halaber, Euskal Herrian argitara eman diren lehenbiziko
gramatikak: Larramendiren *El imposible vencido* (1729) zein Cardabera-
zen *Eusqueraren berri onac* (1761) eta esangura bereziko gertaera dugu
hau, gramatikok, alde batetik, ondorengo idazle —eta euskaldunentzako
oro har— bide-erakusle bilakatuko direlako eta (literatur) hizkuntzaren
batasuna bultzatuko dutelako bestetik. Honen ondorioz, bada, Beterriko
hizkerarenganako zaletasun eta atxikimendua gainontzeko idazle gipu-

tzengana ezezik (horixe dugu, besteak beste, Lardizabal goierritarraren adibidea) beste euskalkietakoengana ere (J. A. Moguel bizkaitarrarekin hasita) hedatu da. Bonapartek berak ere hizkera hori hautatu eta artamendatu zuen literatur gipuzkeraren eredutzat eta Aita Uriarte bizkaitarra —giputz euskalkirako itzulpenez arduratu zena— zeharo zetorren bat honetan Printzearen erabakiarekin.

Guzti hau dela eta, beraz, zentzuzkoa eta egokia begitantzen zaigu Azkuek ere Beterriko hizkera honi lehentasuna eman izana. Azkuek, gainera —eta honi ere arras jokabide zuhurra eta legezkoa deritzogu—, *osotu* nahi izan zuen Beterriko hizkera. Honekin, alde batetik, literatur hizkuntza hori aberatsagoa izan zedin lortu nahi zuen eta, bestetik —eta ez zen hau garai hartan txantxetako kontua—, giputz ez ziren hiztunen-gandiko gutxiagotasunezko konplexuak eta susmo txarrak nahi zituen uxatu eta zapuztu.

Azkueren asmoak ez zuen, hala ere, aurrera egin eta, pixkanaka, gainbehera etorriko zen ondorengo urteetan. Lau dira, gure iduriko, hondamendi horretan zerikusia izan lezaketen arrazoi nagusiak: a) laguntzarik eta babes ofizialik eza, b) hizkuntz eredu hau behar bezain zehatz arautua ez egona, c) literatur tradizioa behar zen neurrian aintzakotzat hartu ez izana eta d) (zenbait) idazle giputzen jarrera “txokozalea”. Azter ditzagun laurok banan-banan.

Behin baino gehiagotan esan izan da *Azkue bera* zela “gipuzkera osotua” eta, izan ere, halaxe zen, ez bait zuen bere atzean ez Euskaltzaindiaren babesik ez eta beste elkarte edo alderdi politikoren laguntzarik eta bai, aitzitik, lehiakide indartsurik. Jeltzaleetarik asko —eta ez ziren hauek ez gutxienak ez ezteusenak— Arana-Goiriren esanei men eginez, euskal Estatu autonomo bakoitzean bertako euskalkia garatzearen aldeko ziren. Horixe zen, esate baterako, Zubietak 1910ean *Euzkadi* aldizkarian azalduko zuen eritzia, Euzkeltzale-Bazkunakoek 1916an plaza-ratutako *Sobre la unificación del euzkera* liburuxkan aldarrikatuko zena edota Manuel de Egileorrek Euskaltzaindiak 1920ko Abenduaren 26an egin batzarrean adieraziko zuena. Ez zen hau, jakina, jeltzale guzti-guztien aburua —eta salbuespenik azpimarragarrienak Koldo Eleizalde bergarra edo Perderika Belaustegigoitia laudiarra, oso jeltzale ezagunak biak, genituzke— baina bai, zoritxarrez, multzo hazi batena.

“Gipuzkera osotua”, bestalde, ez zuen Iparraldera hedatzea erdie-tsi. Mugaz handiko gehientsuenek, hizkuntz arazoez arduraturik zeuden-etarik noski, “nafar-lapurtera literarioari” atxikirik ziharduten, hortik goragoko bestelako auzi eta korapiloek ezikusit eginez.

Azkuek, bigarrenik, ez zuen “gipuzkera osotua” bere ondorengoek *erraz* ikasi eta irakatsi ahal izateko moduan arautu eta sistematizatu. Zabala zen berak ezarritako bidea, zabalegia ere bai ondorengoztat,

hauek ez bait zeukaten euskarari buruz Azkuek adinako jakite orokor eta zehatza. Alderdi honetatik ere, beraz, *Azkue bera* zen “gipuzkera osotua”.

Gaitz honi, gainera, beste bat ere erantsi beharko zaio: Azkuek ez zuen sobera kontutan hartu euskararen literatur tradizioa. Euskara “bizia-ri” eman zion nagusitasun osoa eta horrek, euskarari dagokionez, bazituen bere arriskuak eta, larrienetako bat, hauxe: Azkueren ondorengoek azkenorduko fonetismo eta berrikuntzez egingo duten erabilera zabala. Hau dela eta, Azkuek amesten zuen hizkuntz eredu bakar hura anitzetan zatikatuz joango da beraren jarraitzaileen aho-lumetan.

Azkueren ustezko jarraitzaileetarikoz batzuren zabarkeria eta itsukeria ere nabarmena izan da. Izan dira, alde batetik, “gipuzkera osotua” “gipuzkera hutsarekin” berdindu dutenak. Oso argigarriak derizkiegu, diogunaren frogagarri, A. Ibinagabeitia elantxobetarraren hitzoi:

Izkelgiz gipuzkoar yaio diranei oartxo bat egin nai nieke bukatu baño len. Gipuzkoarrak erakutsi digute ontan ere targorik zoroena. Akademiak aspaldi erabaki zun aditz laguntzallean DUT, DUZU ta urrengoak erabiltzeko, *det* eta *doʼen* ordez.

Orra, gipuzkoarrak oraindik agindu aditzeratara malgutzeke; beti ere beren zorigaiztoko DET erabilki agertzen zaizkigu: orrela Etxaide, Aspaldiko, Mitxelena Salbatore, Lopez Mendizabal, Amillaitz, Antxeta eta abar. Yaunak, zuek ere ikasi ezazute zuenetik zerbait uzten batasunaren onerako. Besteok askoz ere erauzketa aundi ta mingarriagoak egin bear izan ditugu zuen izkelgi ederrari indar emateko (“Kultur bidean”, *Gernika* (1952), 21.zb., 239, orr.).

Salaketa berbera egingo du Eusebio Erkiaga euskaltzain lekeitiarrak 1953ko uztailaren 21ean S. Onaindiari zuzendutako gutun baten:

Hontaz, badakizu gure arteko betiko eztabaidak. Giputzak beti giputz bakarrik. Osotasuna, edota batasuna euren euskalkiz nahi dabe, eurak ezer aldatzeke, eta nekhatzeke. Besteok gara nekhatu eta ikasten saiatu behar dugunok (S. Onaindia, *Eskutitzak* (1974), 15-16. orr.).

Izan da jarrera “txokozale” (=chauvinista) horiek urrunago eraman dituenik ere. Antza, “gipuzkera hutsari” berari ere gehiegizko amore ematea eritzirik, Gipuzkoako azken herriko azken muturreko auzo galduren baten erabiltzen omen diren bitxikeriei —itxuraz oso jatorrak, hori bai!— eman zaie maiz lehentasuna. Betiere bizkaitarren lekukotasunak mahai gainera ekartzea norbaiti susmagarri samarra irudi lekiokenez, Koldo Mitxelena gipuzkoarrak —nahiz ez giputzak— 1958an Bilbon burututako Euskalzaleen Biltzarra-n esandako hitzak aldatuko ditugu oraingoan:

(...) Ni giputza naizen aldetik, naiz ez izkeraz giputza izan, gauza bat esan bear dut: izugarrizko pekatu bat egiten ari gerala gipuzkoarrak azken bolada ontan ikako formekin. *Gatxabiltzek* eta orrelakoak Gipuz-

koako txoko batean bakarrik erabiltzen dirala. Euskaldun guztiak *giabiltzak*, *gebiltzak* edo olako formak erabiltzen dituztela. Beraz, *gatxabiltzek*, *natxetorrek* eta oiek lokalismo estu estuak dira Gipuzkoan. Eta nik ez dut uste gipuzkoarrok, nik neronek ere eztitut erabiltzen eta gure inguruan ez tira erabiltzen, eskubiderik dugunik forma oiek euskaldun guztiai zabaldu nai izateko (...) (**Euskera**, IV(1959), 171. orr.).

Jarrera hauek emaitza jakina ekarri dute: hizkuntz eredu *bakarretik* aldentzeaz eta urruntzeaz batera, Euskal Herri *osoaren* ikuspegia ere ezabatu eta galdu egin da. Giputz ez ziren euskaldunengan, berriz —eta Azkuek berak ere aurikusia zuenez—, “gipuzkera osotua” hartzen ari zen norabideaz jabetuz, proiektu horrenganako hasierako atxikimendua hoztuz joango zen, Ibinagabeitia eta Erkiagaren lekukotasunek argi eta garbi erakusten dutenez.

KRUTWIG ETA “LAPURTERA KLASIKOA”

“Gipuzkera osotua” gainbehera etorri ahala, proposamen berriak plazaratuko dira haren akats eta hutsuneak zuzendu asmoz. Horiatariko bat dugu 1962an *Kurloiak* liburuan Oskillaso gernikarrak erakutsiko duen “euskara osotua” izeneko. Deiturak berak ere salatzen duenez, Azkueren “gipuzkera osotua” “(sasi) gipuzkera huts” bilakatu izanaren ondorio makurrak nahi dira bereziki zuzendu. Adierazgarria deritzogu, orobat, bizkaitar bat izatea eredu honen eragilea, bizkaitarrak izan bait ziren —Azkue bera ere bizkaitarra zen bezala— “gipuzkera osotuaren” aldekorik sutsuenak eta baita nabarmenenak ere.

Edozelan ere, Krutwigek bultzaturiko “lapurtera klasikoa” da proposamen guztietatik osoena, zehatzena eta emaitzetan onuragarriena. Guk dakigula, 1950eko Urtarrilaren 27an Euskaltzaindiak egin bilkura baten erakutsi zuen lehenengoz lapurtera klasikoaren aldeko irtenbide hau. *Euskararen idatzi hizkuntzari buruz* dauka bilera horretan aurkeztutako txostenak izenburutzat eta “Azkue” Bibliotekan, Euskaltzaindiaren batzar-agirien artean, aurki daiteke. Behin eta berriz ekin dio Krutwigek eredu honen aldeko arrazoiak jakitera emateari, hala nola garai beretsuan idatzitako *Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito* txostenean (“Azkue” Bibliotekan gordetzen da hau ere), *Euskara Euskalerrriaren kultur-bidea ledin izan* (*Gernika* (1951), 14.zb., 8-11. orr.), *Seminario yaunari ongi-etorria* (*Euzko-gogoa*, III(1952), 7-8.zb., 29-31. orr.) edota beraren lan buruzagitzat joko genukeen *Euskararen ethorkizuna* (*Egan*, XX(1962), 1-3zb., 19-33. orr.) izenekoan. Krutwigekin batera, ezin aipatzeke utzi L. Villasantek Euskaltzaindirako sarrera-hitzaldian irakurritako *Literatur-euskara laphurr-tarr klasikoaren gain eratua* (*BAP*, VIII(1952), 91-119 eta 259-298. orr.) izeneko lan interesgarria.

Jarraitzaile dexente bildu zituen Krutwigek bere inguruan. 1950ean “Urkijotarr Jul Elkhargoa” sortu zuen Bilbon, bertako partaideak, denak, edo gehienak behintzat bai, bizkaitarrak zirelarik: L. Akesolo, Arrutza, I. Berriatua, E. Erkiaga, B. Garro “Otxolua”, J. Gorostiaga, L. Villasante... Ondorengo urteetan oso ezagun izatera iritsiko zen idazle banaka batek ere —J. Mirandek edo G. Arestik adibidez— lapurteraranzko isuria agertuko zuen. Urteak iragan ahala, ostera, indar hori ahulduz eta iraungiz joango zen. Bada honetan, alabaina, nahitaez egin beharreko zehaztasun bat: eredua bera —“lapurtera klasikoa”— da bertan behera utziko dena, baina Krutwigen asmo eta helburuek bizi-bizirik iraungo dute eta gerokoengan ere, gainera, bete-beteko eragina izango.

Hiru dira, gure eritziz, euskararen batasunari begira Krutwigek ekarri dituen berrikuntzarik aipagarrienak: a) literatur tradizioari ematen dion lehentasun eta nagusitasuna, b) euskara kultur hizkuntza bilakatzearren egiten duen ahalegina eta c) hizkuntz eredu hori Euskal Herri osora —Hego zein Iparraldera— hedatzeko daukan kontzientzia garbia. Guzti honekin, ondorengo lerroetan erakusten saiatuko garenez, eten nabarmena gertatuko da euskararen historiaren harian.

XIX. mende hondarretan hasita —eta badute honetan zerikusirik orduan garatzen diren jarrera ultragarbizaleek— arbuia garritzat jo izan da —Hegoaldean batez ere— euskal literatura zaharra. Erdal ereduakiko omen daukan larregizko menpekotasuna —hala hiztegian nola joskeran— da egotziko dioten gaitza. Krutwigek, aitzitik, tradizio hori berreskuratzeko ardura bizia agertuko du eta kezka hori bere ingurukoengan ere txertatzen ahaleginduko. Aspaldiko idazleen lanak (berr)argitaratzeari eta aztertzeari ekingo zaio eta lehia horretan inor gailendu baldin bada, hori, inolako ezpairik gabe, Koldo Mitxelena izan dugu. Lekuko zaharrak —eta ez bakarrik Lapurdikoak— ezagutzera ematearekin batera (bizkaierazko *Viva Jesus* eta Betolaçaren kristau-ikasbidea edota Hegoaldeko euskalkiaren altxor aberatsa, Landuchioren hiztegia alegia), lekuko horiek ikertu ere egingo ditu (*Fonética Histórica Vasca*, *Textos arcaicos vascos* eta han-hemenka argitaratutako artikulua ugarietan). Mitxelena ere ondo jabetuko zen historian zenbat eta gorago jo orduan eta batuago zeudela euskalkiak. Iragan hori aintzakotzat hartzeak zirudien, bada, euskalkietan barrena azkenorduan sortutako txokokeriak zapuzteko eta baztertze bide bakarra eta, beraz, batasuna eskuratzeko giltza.

Euskara kultur hizkuntza bihurtzearena da Krutwigen beste helburuetako bat eta, honetan ere, ezin eten nabarmenagoa egingo zuen ordura arteko tradizioarekin. Kezka honi, gainera, askok uste izan dezakeena baino inportanteagoa deritzogu, guk geuk behintzat honetantxe ikusi uste bait dugu, hain zuzen ere, makinatxo bat euskaldunek batasunari egin dioten ukoaren gakoa.

Euskararen batasuna honen berandu iritsi bada, hori, neurri zabal baten, kultur esparruetan erdarez (latina, okzitanoa, frantsesa edo gaztelania) baliaitu izan garelako gertatu da. Euskara hizkuntza *mintzatua* izatera mugatu dugu eta, idazteko erabili dugunean ere, oso esparru estuak ezarri dizkiogu gehienetan: eliz liburuak edota herri literatura (ipuinak, alegiak, bertsoak...) eta, euskalkiak ezezik, eskualde jakin bateko hizkera bera ere nahikoa zen zeregin horiek ongi asko asetzeko. Hauxe izan da, jakinaren gainean edo oharkabean, euskaldunok egin izan dugun hizkuntz erabilera eta, hortik, mendez mendeko ohitura horren eraginaren ondorioz, askok eta askok euskararen batasuna ero batzuren —eta are gauzak zailtzera eta hondatzera zetozen Euskal Herriaren etsaien— ekin-tza deitoragarritzat jotzea.

Krutwig, ostera, ondo konturatu zen Euskal Herriak —edo Herri horren zatirik dinamikoenak behinik behin— nekazal egituratiko industrial eta hiritarrerako jautzia emana zuela aspaldi eta mota horretako gizarte baten noraezekoa zela hiritar guztiak alfabetizaturik egotea. Arazo nagusia alfabetizazio hori zein hizkuntzatan egitean zetzan: a) erdaraz, ordura arteko ohiturari jarraituz, ala b) euskaraz, aurreko egoera errotik irauliz.

Lehenbiziko bidea hautatzera, jakina, indarrak alferrik galtzea zen batasun kontuetan murgiltzea; baina, bigarrena hautatzera, eredu standard bat aukeratu eta, ondoren, eredu hori arautu (zer-nolako ortografia, deklinabidea, aditza...) beharra zegoen.

Krutwigen hirugarren xedea, azkenik, Euskal Herri osorako euskara bakarra itxuratzea izango zen. Ez da izan Krutwig, ezta hurrik eman ere, euskararen historian zehar helburu hau aipatzen lehena; baina, gerraosteko urte beltz haietan, bera izango dugu jomuga hori biribilen eta erabatekoen aldarrikatuko duena, hala nola 1962an argitara emandako *Vasconia* liburu ezagunean.

EUSKARA BATURANZKO AITZINURRATSAK

Krutwigen asmo eta proposamenek onarpen zabala bereganatu bazuten ere, eta belaunaldi gazteen —60 urteetako hamarkadakoez ari gara— artean bereziki, aukeratu beharreko hizkuntz ereduari zetzan eztabaidaiturri nagusia. Gehientsuenen eritziz, hark artamendatutako lapurtera klasikoa ez zen Euskal Herriak bizi zuen egoerarentzako irtenbiderik egokiena. Literatur tradizioa eta euskara bizia uztartu nahi izango dute hauek edo, bestela esanda, bien arteko oreka bilatu. Txillardegik 1958ko Euskalzaleen Biltzarra-n aurkeztu txostena litzateke, gutziz oker ez bagaude behintzat, eredu honen alde azaldu izan den lehen proposamena. Oartzun-Sara-Elizondo inguruetako hizkera da berak hobetsiko duena.

Eredutzat ezarriko dituen idazleak, berriz, XIX. mendeko Duvoisin lapur-tarra eta XVIII.eko Mendiburu oiartzuarra.

Argibide teorikoak Txillardegik zehaztuko dituen arren, G. Aresti poeta bilbotarra izango da asmo horiek praktikan ezartzen aitzindaria. J. San Martinek gogora ekarri legez, 1959an argitaratutako *Maldan Behera*-n idoro dezakegu, gerora, "euskara batua" deituko zen eredu standardaren adibide gardena.

Batasunaren auzia pil-pilean zeuden urteak ziren 60etako haiek. Hitz hutsetan eta eztabaida antzuetan aritzeko barik, erabaki zehatzak hartze-ko ordua heldua zela eritzirik, 1963an sortuko da Baionan "Euskal Idazkaritza". Elkarrekin honetako "Hizkuntza-Sailean", astero-astero, eta zortzi hilabetetan zehar, bilduko dira J. M. Bilbao, J-L. Davant, R. Idiart, E. Irigarai, T. Monzón, J. Solaun eta Txillardegi. Talde-lan honen emaitza izango da 1964eko Agorriaren 29-30etako ihardunaldien ondoren plaza-ratuko diren *Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak*. Txosten honen laburtasuna gorabehera —zazpi orrialde ditu denetara—, bertan azalduko dira ortografia, deklinabidea eta aditzari buruzko oinarrizko arau eta erizpideak.

Hurrengo urratsa 1968ko Ekainaren 28-30 bitartean Ermuan, "Gere-diaga" Elkarrekin antolatuta, burutuko den bileran emango da. Bertan, Baionako erabakiak berronestearekin batera, batasuna azkartzeaz eta sendotzeaz ere mintzatuko da eta helburu hauek aurrera eraman asmoz sortuko da, sortu ere, "Idazleen Alkartea", berau izango delarik, ondorengo hilabeteetan, batasunaren zuzia bere gain hartuko duena.

Azken urratsa, urrats erabakiorra, 1968ko Urrian Euskaltzaindiak burututako Batzarrean emango da. G. Arestirengandik etorri zen Batzar hori deitzeko eskaria eta Euskaltzaindiak, sor zitezkeen istilu eta tirabirak somatu zituen arren, ez zegoela atzera egiterik ere ikusi zuen.

Arantzazuko Batzarrean eta 1964eko Baionakoan hartutako erabakien artean ez dago, egia esan, alde nabarmenagirik. Euskaltzaindiak abian zetozen joera bati bere babesa eta itzala eman izana da, honetan, gertaerarik azpimarragarriena eta, horrekin batera, batasuna burutu eta kudeatzeko ardura hizkuntzalari aditu eta euskararen berri sakona zeukan euskaltzainaren —hots, Koldo Mitxelenaren— esku utzi izana.